

## DIRU ITURRIAK

Salmentan ditugun aktiboen prezioa dinamikoa izango da. Bizikletak egiteko lehengaiak garestitzen badira, gure prezioek ere gora egingo dute, eta alderantziz. Saltzen ditugun bizikletak, denak eguzki panelak instalaturik izango dituzte, baina ez dira bizikleta berdinak izango.

Horregatik, posiblea da bizikletak material edo ezaugarri desberdinak izanda, beraien prezioa edo kostua aldatzea. Esan dezakegu, gure prezioak ezaugarrien arabekoak izango direla, eta denbora errealeko merkatuaren arabera; eskaintza eta eskaeraren legearen arabekoa ere.



Denda fisikoa izango dugu, kalean dagoen beste negozio bat bezala. Baina baita ere, denda online bat izango dugu, hortik, enkarguak edo dendan jasotzeko produktuak erosi ahalko dira.

Hortaz, ordaintzeko modu asko izango ditugu. Zuzenean ordaintzeko, ezagutzen ditugun modu arruntean ordaindu ahalko da: eskudirua, debitozko, kredituzko eta aurreordainketazko txartelekin. Aldiz, online web-gunearen bidez ordainketak egin ahal izateko; PayPal edo kontu bankaria online erabiltzea posiblea izango dute bezeroek.

Gure bezeroen abantailerako, beste aukera batzuk izango dugu produktuengatik ordaintzeko; momentuan kostu osoa ordaintzeaz aparte kostu totala epeetan ordaintzeko aukera eskainiko diegu, kostu adizionalik gabe. Modu berdinean, kanbio-letrak onartuko ditugu, bezeroek eskatzen badituzte.